

Iñigo Urkullu

«Patxi Lopez bere irudiari begira ari den lehendakaria da»

PSE-EEk Arabako Foru Aldundian ez duela zentsura moziorik aurkeztuko esan aurretik elkarrizketatu genuen EAJko EBBko presidentea. Iraganeko nahiz eguneroko gaiak izan ditugu mintzagai. PSE, Batasuna nahiz PPrekiko jarrera politikoa eskaini digu Iñigo Urkulluk (Alonsotegi, 1961). Udazkena itxaron barik, politikari udan ekitea hobesten du berak.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Patxi Lopez lehendakariak Moncloara eta Nafarroara egindako bidaiak –Zapaterori eta Miguel Sanzi egindako bisiten kariatara– nahiz ETBko eguraldiaren mapa berriaren inguruan esan dizkigunak paratu ditugu abiapuntuan. Hauexek, labur-zurrean, Iñigo Urkulluren berbak:

“Patxi Lopez bere irudiari begira ari den lehendakaria da, edukirik gabekoa. Aurreko lehendakariak egindako lanari esker zuzentzen ari da Jaurlaritza. Lopezek nahiz Zapaterok irudien bitartez argudiatu nahi dute justifikatu ezin dutena. Hau da, PPren babesari esker daudela Jaurlaritzan zein Lehendakaritzan. Horrek beren ahulezia baino ez du irudikatzen. Lopez eta Zapatero, aldaketa politikoa irudikatzeko, edukirik gabeko politika lantzen ari dira. Nafarroan ere errealitatea ezkutatu nahi dute. Nafarroako Gobernuak eta Jaurlaritzak lankidetzarako organo bakuna sinatu zuten PSNko presidentea Javier Otano izan zenean. Orduko akordioa oraingoa baino sendoagoa zen, baina Alderdi Sozialistaren barne tirabirak eta eskandaluak tarteko zapuztu zen. Oraingo akordioa gauza berria balitz bezala irudikatu dute. Errealitatea faltsutu nahi dute. Berbarako, ETBko eguraldiaren mapan ere irudiarekin jokatu dute. Irudiak irudi, umekeria da egin dutena”.

Duela hiru urte hau esan zenuen orriotan: “Kezkagarria litzateke PSE

joko elektoraletan ibiltzea”. Gertatu denaren iragarpena al zen?

Bai. Orduko nire kezka, PSOEk Espainiako Kongresurako hauteskundeak irabaztean hartu zuen mozkorraldia ikusita, PSEk ere EAEko hauteskundeak irabaziko zituen uste-tan, finkatu zezakeen estrategiak kezkatu ninduen. Baina estrategia hau ez da euskal gizartearen onura bilatzeko, bere nahikeriak finkatzeko baizik. Edo okerrago: Estatuaren estrategia finkatzeko izan daiteke. PSE epe oso motzera jokatzan ari da. 1998an [Lizarra-Garaziko akordioaren garaia] gauzatzen hasi zen estrategia da, oso arrisksua.

“Abertzaleak garen heinean independentistak gara, jakina. Ni alderdiko pertsonekin ez naiz hika-miketan sartuko”

Xabier Arzalluzek esana: “EAJ Euskal Estatua eratzeke jaio zen. EAJko Batzar Nazionalari galdera hau egingo nioke: independentistak zarete, bai ala ez?” Zer dio EAJko EEBko buruak?

Abertzaleak garen heinean independentistak gara, jakina. Ni alderdiko pertsonekin ez naiz hika-miketan sartuko. Bakoitzak geure historia daukagu. Ni Aberri Batzarrak hautatua naiz eta nire erantzukizuna EBB gidatzea da. Abertzale eta EAJko kide naizen heinean garbi daukat zer

naizen eta zer izan nahi dudana, eta badakit jakin gure azkeneko helburua zein den. Iazko urrian Sabino Arana Fundazioak antolatutako mintegian hau esan nuen EBBko presidente gisa: “Politika egunero finkatzen dugun ahalean Euskal Estatuaren ideia gehiago landu behar dugu”. Non dago duda?

EAJko txostenek independentziaren bidea seinatzen ei dute...

Azken txostena Aberri Batzarrak aho batez onartutakoa da, 2007ko abenduan. Erabakitzeke eskubideari buruzko planteamendua idatzita dago bertan. Estatuari akordiorako eskaintza egiten zaio zehatz-mehatz, euskal alderdien arteko akordioan oinarriturik, euskal gizarteak gauzatu dezan. Batzuek batzarretan parte hartu gabe eta txostenak irakurri gabe hitz egiten dute.

Non geratu da Ibarretxe Plana, hots, Estatutu Berrirako plana?

Ez da Ibarretxe Plana. Estatutu Berria –tirabira artean izan bazen ere– Eusko Legebiltzarrak onartutako testua da, testu juridikoa. Hor dago. EAJk abiapuntu gisa dauka. Beste abiapuntua Galdaketaren Legea da, Legebiltzarrean onartua. Espainiako epaitegiek indargabetuta zutena, baina Europako Giza Eskubideen Batzordean aztergai dagoena. Europako Auzitegiak ez du bere ebazpena eman oraindik ere. Guk ez ditugu gure txostenak

baztertu, ez diegu ere Eusko Legebiltzarrak gehiengo onartu dituen erabakiei muzin egin. EAJk Estatutu Berriaren garapena aldarrikatzen jarraitzen du. Kontua da zein aukera dugun horiek indarrean jartzeko. Badugu aukerarik, bai ala ez? Nola?

Arnaldo Otegi esana: "EAJk Ibarretxe kendu zuen eta Lizarra-Garaziko zikloa itxi".

Batzuek beren etxe barruko ahuleziak estali nahi izaten dituzte besteei ahuleziak leporatuz. Arnaldo Otegi askotan gertatzen zaio hori. Alegia, besteen ustezko egoera irudikatu nahirik, egia ez den errealitatea eraikitzen saiatzen da Otegi. Ibarretxe aurretik kendu egin dugula? Ibarretxe lehendakari aho batez onartu genuen EAJn. Iazko Alderdi Egunean alderdi kide guztiei eta gizarteari helarazitako mezuan adierazi zitzaion hori. Areago, egitasmoa Ibarretxek berak aurrera eraman izan zuen. Hauteskundeetan ostean Ibarretxek eta biok lurraldeetako presidentekin batera bildu ginen... Batzuk gu zatitu nahian ari dira, besterik ez.

"EAJk indar erregionalista bilakatze-ko apustu egingo du" esan du ere Otegi. Bai ote?

Ez daukat batere konplexurik. Beste asko berriz, konplexuz beterik daude. Esaterako, ezker abertzalea deritzonak PSErekin harremanak izan ditu eta baditu. Ondorioz, inor baino independentistagoa omen den ezker abertzalea erregionalista bilakatu al da? Otegiaren adierazpenak konplexuz beterik daude. Nolanahi, nonahi eta komeni zaion arabera hitz hutsak dira. Ezker abertzalea deritzon horrek, adibidez, 1980ko hamarkadan *gobierno vascongado* terminoa erabili ohi zuen hitzetik hortzera. Orain, berriz, EAJ Jaurlaritzatik kanpo geratu denean, dirudienez, ez dugu behar bezalako indarra Jaurlaritzan egoteko, besteak beste Ibarretxe baztertu dugulako. Kontxo! Ibarretxe lehendakaria Legebiltzarrak hautatua izan zenean berauek *parlamento vascongado* omen zen hartan zeuden. Konplexuz beteriko planteamenduak besterik ez dira.

Loiolako elkarriketen ostean alderdien arteko harremanek are okerrera egin dute, antza.



"Eusko Jaurlaritzak ez ditu bi eskumen ukituko: Espetxe Politika eta Gizarte Segurantzak".

Bai. Halere, prozesua bukatu zenean, bai Batasuneko bai PSEko kideekin hitz egiten jarraitu genuen. Eurek eskatu ziguten bitartekaritza lana egiten jarri genezan. Gero Batasuneko ordezkariak espetxeratuak izan ondoren, 2008ko otsailean PSErekin bildu ginen. Loiolako akordioaren oinarrian arakutzen jarraitzeko prest ginela esan genien. "Ez daukagu EAJrekin politikaz ezertaz hitz egiteko, Batasuna bertan ez badago" erantzun ziguten. Estrategia hori hitzez hitz bete dute. Okerrago oraindik: ez dago alderdien arteko estrategiarik, ez gizarteari begira antolatutako estrategiarik. Dagoena EAJ jipoitzeko estrategia da. Batasunaren aldetik berdina. Batasunak bada-ki Loiolako prozesua etetea nork erabaki zuen. Orain Estatuak ezarritako

espetxe politika gure ardura dela irudikatu nahi dute. Batasuneko sektoreen aldetik jarrera gaiztoak jasan behar ditugu egunero, eta gainera, badirudi guri dagokigula arazoaren aurrean aitzindaritza hartzea. Bada ez.

Abertzaletasuna krisian hizpide hartuta "Gaurko ahulezia nola bihurtu biharko indar" idatzi dugu ARGIAN. Bat zatoz horrekin?

Ez. Gizartea nolakoa den eta norantz doan aztertu behar dugu egunero. Globalizazioaren testuinguruan bizi gara uneon, ez zaio beraz, euskal gizarteari bakarrik begiratu behar, inguruko gizartei ere begiratu behar diegu gurea eraikitzeko. Halaber, estatuek, erregioek eta erkidego txikiek zein rol



"Sabino Arana Fundazioak antolatutako mintegian hau esan nuen EBBko presidente gisa: politika egunero finkatzen dugun ahalean Euskal Estatuaren ideia gehiago landu behar dugu. Non dago duda?"

jokatzen duten aztertu behar dugu. Globalizazioaren prozesua bizitzen ari garen honetan, txikitasunak bere onura du, onura, balio eta indarra. Itxaropen handia dut abertzaletasunaren sasoian eta izaeran. Kontua baina abertzaletasuna eguneroko jardun eraginkorra bihurtzea da, gizartearekiko lanean dago erronka. Askotan politikariok abertzaletasunaz hitz egiten dugu XIX. mendeko abertzaletasunaz ariko bagina bezala, ez gara egungo gizartearen izaeraz jabetzen. Abertzaletasuna bizitzeko modu ezberdinak daude, nik gizartean bi multzo bereziko nituzke: 50 urtetik gorakoena eta 50 urtetik beherakoena. Nik ez diot abertzaletasunaren ustezko krisiari beldurrik, baina berau eguneroko lanean gauzatzeko estrategiaren falta ikusten dut. Abertzaletasuna gizartean sustatzeko eguneroko lana egin behar da, horra zeregin zailena.

"Sinestu, adostu eta ausartu behar du abertzaletasunak". Zer deritzozu leinari? Ondo. Ez da ezer berririk, nik sinestu, adostu eta ausartu nahi dut nire hurbilekoekin.

Haatik, udazkenean EAJtik ezkerrean hainbat indar politikok osatuko duten polo subiranistan ez zarete egongo. Zein dira hainbat indar horiek?

Joan den martxoan Greba Orokorreara deitu zutenak...

Bada, nik dakidanez, Aralar ez da polo subiranista horretan egongo.

Polo edo ezkerreko blokean...

Ez, ez batean ez bestean. Ekimen hori lehen aipatutako konplexuen barnean sartzen dut. Ezker abertzaletza deritzon jendearen belarrietara erakargarriak diren hitzak dira horiek: polo, bloke, indar metaketa... Lizarra-Garaziko garaian ere horiek eta antzekoak erabili zituzten, baita Xibertan ere duela 30 urte. Proiektu politikoa omen duen sektore horrek goizetik gauera abertzaletza dela esaten pasatzen du denbora, beste ezer eskaini gabe. Proiektu politiko batek pertsonen eta gizartearen eredia zein den adierazi behar du, eguneroko jardunean proiektu zehatza landuz. Hitz edota lelo horiek proiektu eza ezkutatzen dute.

Udazkenean aldaketak iragarri dira ezkerreko abertzaletasunetik.

"Batzuek beren etxe barruko ahuleziak estali nahi izaten dituzte besteei ahuleziak leporatuz. Otegiri askotan gertatzen zaio hori"

Planteamendu horiek, errepikatzearen poderioz, baliogabetu dira. Mundu horretatik errepikatzen diren leloek ez dute balio jada. Zergatik ez dute esaten "planteamendu" delako horretan ETAk esku-sartzerik izango duen? Bai ala ez? Ez dute esaten. Alegia, udazkena baino lehenago uda da. Esan dezatela orain, udan. Egungo jardura politikoak arduratzen nau uneon.

Eguneroko proiektu politikoak landu beharra aipatu duzu. Zertan datza EAJ Eusko Legebiltzarrean lantzen ari den oposizioa?

Gure lana ez da pertsona bakar baten kontua, lan talde indartsuak eta baliotsuak ditugu Legebiltzarrean. Estrategia baten arabera gida finkatu dugu, erakundeetan aitzindaritzara rola jokatzeko estrategia. EAJk gizartean egin behar duen errotze lana baztertu gabe betiere, ez dugu bakarrik erakundeetan lan egingo. EAEko gizarte eragileekin nahiz norbanakoekin, esparruz esparru, hasi gara lanean. Legebiltzarrean hasi orduko arduraz jokatu genuen eta Patxi Lopez lehendakariari etorkizunari begirako 10 ardatz estrategikoen plana aurkeztu genion.

Esan nahi baita...

Hauteskundeetan biharamunean PSEri erakundearen egonkortasun-

nerako proposamena egin genion. Euren erantzuna “ez” izan zen. Bestalde, 10 ardatzeko proposamenan, gizarte eta herri bat eraikitze-ko eskaintza dago. Alabaina, oraindik ez dugu erantzunik jaso. Horrek PSEren ahulezia agerian utzi du.

Berriki, beste eskaintza bat egin diozue Jaurlaritzari. PSEk errezeloz hartu duena, antza.

Bai. Eskaintzak hainbat oinarri dauka. Bat: ahalik eta ariketa arin eta sendoe-
na egitea krisitik ateratzeko. Bi: etikoki politikaren langa gorago jartzea. Hiru: burujabetasunaren bidean autogobernu-
an sakontzeko ariketa lantzea. Oinarri hauetan 10 ardatz estrategiko-
en eskaintza finkatuta dago. Hezkun-
tzaren, hizkuntzaren eta komunikabi-
deen garapena, besteak beste, aztertze-
ko hamar atal dira, eguneroko politikan aritzeko atalak. Estatutu-
aren, euskal erakundeen defentsa eta autogobernuan sakontzea ere aipa-
tzen da. Eskaintza serioa ote den gal-
detu digute orain. PSEren jarrera bere
ahuleziaren adierazgarria da.

**Analista batzuek berriz “EAJ eta PSE akordio batera iritsiko dira legeal-
dian” esan dute.**

Ez dakit zertan funtsatzen duten hori. Ni ez naiz ariketa horretan ari, nire kezka EAJren proiektua bidera-
tzea da. Holako leloen aurrean haxe
esan behar dut: EAJk badaki zein
den gizarteak eman dion babesa. Beraz, ez dut nahi PSEk eta PPk egin
duten hitzarmena egonkorra bihurtu
dadin, urtetan geratzeko hitzarmena
izan dadin. PPrekin egindako hitzar-
mena noiz arteko eta zertarakoa den
PSEk jakingo du, nik ez dakit.

**PSEk ez du PPrekin duen akordioa
baztertzen, baina Legebiltzarreko
beste indar politikoeekin hitzartzea ere
posible dela dio.**

Hori horrela, besterik gabe, ezin du
inondik inora izan. Alderdi batek
sendoa izan behar du eta bere ideiaz
ondo jabetuta egon: zer pertsona
mota eta gizarte mota nahi ditugu? Zer herri mota nahi dugu? Ideia
horiek konpartitzen al ditugu? Bai,
ez? PSEk eta PPk duten akordioa,
gurekin, EARekin, Aralarrekin zein
gainontzeko alderdiek konpartitu
dezaketela pentsatzea, besterik gabe,
kimerak dira. Eta kimerak ez dira
batere lagungarriak politikariek gizar-
tearen konfiantza irabaz dezagun.

**“Legebiltzarrak onartu
zuen Estatutu Berria gure
helburua dela adierazi
nion Patxi Lopez
lehendakariari”**

Jaurlaritzari egindako eskaintza Ara-
bako Batzar Nagusietan EAJren aur-
kako mozio zentsura geldiarazteko
egin duzuela esan dute batzuek, PSEk
zuhurtiaz hartu du nonbait.

Nik dakidana hedabideen bidez
dakit, PPko Antonio Basagoiti jau-
nak publikoki esandakoa: mozio zen-
tsura beraien artean hitzartuta dutela,
eta ez dutela publikoki ezer esango
horretaz. Nik haxe esan behar dut,
bereiziki Arabako gizarteari: guk soi-
lik dakigu nola hartu genuen Araba-
ko Gobernuaren agintea, PP bertan
zortzi urtez egon eta gero. PSEk
jakin behar luke zein arrisku hartzen
duen PPri babesa ematen badio.

**Kontziente al zarete, PSEk ekar ditz-
keela Espainiako gobernuek eman ez
dituzten transferentziak?**

Kontziente gara gure eskumen
hauek estatu estrategia modura era-
bili ditzaketela. PSOeren zatia
izanda, kontziente gara PSEk
Espainiako Alderdi Sozialistaren
babesa izango duela. Gu transfe-
rentziak ekarri baino, ea eskumen
horiek nola gauzatzen dituzten
zuhur begiratuko dugu. Neronek
Patxi Lopezi, enplegurako politikan
dituen planteamenduei buruz, hau
da, politika eraginkorrak deritzone-
ko eskumena gauzatzeko duen
asmoaz galdetu nion. Esan zidan
ez zeukala garbi zenbatean oinarri-
tzen den eskumen hori: 180 eta 400
milioi euro artean izango dela. “Gu
adi egongo gara” erantzun nion.
Aurreko Jaurlaritzak politika hori
sustatzeko 400 milioi euro ekarri
zuela esan nion. Baita ere esan
nion, Gernikako Estatutuaren 36
eskumenen zain gaudela, adi eta
zuhur. Areago, ez dela bakarrik 30
urte eta gero eskumenak betetze
soila. Eskumenen eguneratzea eta
gaurkotzea behar-beharrezko dela.
Halaber adierazi nion, Eusko Lege-
biltzarrak onartu zuen Estatutu
Berria gure helburua dela.

**Gizarte Segurantzako eskumena
gauzatzen ausartuko al litzateke PSE
Jaurlaritzan izanda?**

Inondik inora ere. Lehendakariak
esan zidanez, gauzatzeko dauden
eskumenak kontuan hartuko
dituzte, baina aurreko Legebiltza-
rrak hartutako erabakietatik bi ez
dituztela ukituko: Espetxe Politika
eta Gizarte Segurantza. ■



Herriko plaza z/g • 20150 ADUNA (Gipuzkoa)
Tel. 943 69 34 81



Uztartza
ATERPETXEA eta JATETXEA





Eguneroko menua
Asteburuetan betiko sukaldaritza